

Marmari

30. zenbakia / 2018ko abendua

Leizako
aldizkaria



- Euskaraldia Leitzan
- Herri Aretotik berria
- Liburutegia
- Leitza irudietan
- eta gehiago...



Kulturarentzako plaza berria



zenbaki honetan:



3. or. Aurkezpena

4-7. or. Euskaraldia, 11 egunez elkarrekin euskaraz

8-10. or. Herri Aretoa

11-14. or. Leitza Mari Karmen Arregiren begietan

15. or. Hitzokei

16-19. or. Harkaitz Delgadori elkarrizketa

20-21. or. Erletakoak olerkari

22. or. Nongoak dira oporretara etortzen diren bisitariak?

23. or. ... eta Leitzara bizitzera etorritakoak?

24. or. Eta zuk, zer diozu?



Hogeitamar ale argitaratu ditu jada MARMARIK, haxe dugu 30.a. 2000. urtean abiatu zuen ibilbidea aldizkariak, orduko MARMARI euskara taldearen eskutik, eta konturatzerako 18 urte pasa dira. Urte hauetan guztietan izan da herriari eta euskarari lotutako kontu eta erreportaje franko.

Oraingo alean ere ez da gairik falta. Hemen da urte amaieran Euskal Herri osoan halako oihartzuna izan zuen Euskaraldiari buruzko erreportajea. Kaleratu ditugun argazki mordoak erakusten du Leitza ere euskaraldiak piztu zuen ilusioa handia izan zela, herritar askok parte hartu baitzuen 11 egunez euskararen aldeko ariketa kolektiboan.

Leitzak izanen duen Herri Areto berriari buruzkaoko ere ekarri ditugu.

Orain arteko zinemari agur esateko ordua iritsi zaio eta horrek areto moderno bati emanen dio paso orain. Berritze lanak zertan doazen eta etorkizunean izanen den aretoaren itxura berria nolakoa izan daitekeen ikusiko dugu. Horretaz gain, urte hauetan zineman antolatutako ekitaldi andanaren argazki sorta bat duzue, egin diren gauza ezberdinen erakusgarri gisara. Kultur bizitza oparo horri segida eman diezaion behar du Leitzak Herri aretoa.

Herriko liburutegian ere erreleboa iritsi zen urte hasierarekin batera, eta urtearen balorazioa egiteko elkarrizketa egin diogu Harkaitz Delgado liburuzaing berriari. Kontatu digu zer egin den aurtun liburutegian, baina batez ere argazkien bidez erakutsi digu. Izan ere

literaturaren inguruko hainbat emanaldi arrakastatsu izan da herriko liburutegian.

30. alea irudi ederrez janzteko Mari Karmen Arregik ekarri dizkigu argazki polit askoak. *Leitza Mari Karmen begietan* izeneko atalean ikusiko eta gozatuko duzue, herriko bazterrak, paisajeak eta ospakizunak ere bildu ditu.

Erleta Eskolako ikasleek ere eskaini digute tarte bat. 5. mailako gaztetxoek gai ezberdinen gaineko poemak idazti dituzte: euskara, eskola, Leitza, mendiak, koloreak, laguntasuna, ... izan dituzte inspirazi- iturri olerkiak osatzeko. Lan bikaina egin dute propio, Marmarirako.

Hauek ete beste gehiago izanen duzue irakurgai, eta guztiak zuen gustukoak izatea espero dugu. Goza dezazuela!



EUSKARALDIA

Amazabal institutuko ikasleak eta irakasleak euskararen eguna ospatzen.

11 egunez elkarrekin euskaraz

Iritsi zen eguna, ... baita pasa ere. Azkar batean joan ziren Euskaraldian parte hartzeko 11 egunak. Azaroaren 23tik abenduaren 3ra bat egin zuen Leitzak ere Euskaraldiarekin.

Euskal Herri osoan elkarrekin eta aldeberean euskaraz aritzeko ariketa sozial kolektiboa izan da Euskaraldia. Ekimena iritsi aurretik Bartzordea sortu zen Leitzan, herritar multzo batez osatua. Gaia herrian ezagutaraztea eta hainbat ekitaldi antolatzea izan da batzorde honen egiteko nagusia. Eta horrela, 11 egunak iritsi aurretik eta baita bitartean ere, jarduera anitzak prestatu dira Leitzan, Euskal Herriko beste toki askotan bezala.

- Photocalla egin zen plazan, BTT Leitzuliaren egunean. Ia 60 lagunek atara zuten argazkia Ahobizi eta Belarriprest markoak eskuan hartuta. Modu horretan, Euskaraldiaren aldeko atxi-

kimendua adierazi zuten herritarrek.

- Izena emateko mahaia jarri zuten Aurrrera egunean. Beste batean Amazabal Institutuan jarri zuten mahaia, Batxilergoko ikasleak zein irakasleak izena ematera animatuz.
- Txapak banatzen hasi ziren Bertako Produktuen Azoka egunean, eta arrakasta itzela izan zuen, txapak jasotzeaz gain, herritar askok aprobetxatu zuelako izena emateko.
- Udaletxean egin zen aurkezpen ekitaldian, herritar asko eta ugariren babesa jaso zuen ekimenak.
- **Hamaikakoaren aurkezpena*** egin zen ekitaldi horretan bertan. Herriko hamaika pertsonak bat egin zuten Euskaraldiarekin: adin eta arlo ezberdineko jendeak osatu zuen hamaikakoa.
- TTAk bakarrikzeta mundiala eskaini zuen Beatriz Egizabal aktoreak, Gaztetxean. Euskaraldiak ekarriko zue-

nari buruzko monologoa izan zen.

- Izen-ematean sekulako uholdea sortu zen herrian, azkeneko egunetan batez ere.
- Azaroak 23an txupinazoa boteaz eman zitzaion hasiera Euskaraldiari Leitzan.
- Txapak jantzita ibili ginen batera eta bestera, AHOBIZI eta BELARRIPREST rolak betez.
- Abenduaren 3an Euskararen eguna antolatu zuten Institutuan ikasle eta irakasleek.

DATUAK:

Leitzan guztira 477 herritarrek eman zuten izena Euskaraldian

- 435 Ahobizi
- 42 Belarriprest

Eskualdean (Leitza -Areso barne-, Goizueta, Arano) guztira 663 partaide

- 609 Ahobizi
- 54 Belarriprest



Euskaraldiaren aurkezpen ekitaldia.



***Hamaikakoa osatu zutenen izenak, ezkerretik hasita:**

MIKEL ZABALETA: herriko alkatea. Leitzako udalak euskarekiko adierazi duen konpromezua erakutsi nahi du alkateak.

MARIA PILAR LASARTE: Euskaltzaindiko lehenbiziko langile emakumezkoa izan zen. euskaltzain urgazle ere bada 1983tik.

JULEN ZEBALLOS: KATEZ taldeko kidea. 2016an Gaztea Maketa Lehiaketako publikoaren GazteBizHitza saria irabazi zuten. Euskaraz abesten dute.

HELENI ZABALETA: Erleta eskolako zuzendaria. Euskarazko eskola ereduari lotuta, 42 urte eman ditu irakaskuntzan, eta heldu den urtean erretiroa hartuko du.

PATRI GARCÉS: Zangozakoa, Leitzara bizitzera etorria eta euskara ikasi behar zuela erabaki zuen. Belarriprest bikaina izanen da, Patri!

JOSEBA SAGASTIBELTZA: Aurrerako Pilota Eskolako zuzendaritzako kidea, eta dantza taldeko arduraduna.

ESTITXU ASTIBIA: KXKbeltza elkarteko zuzendaritzako kidea. Ahalegin berezi egiten dute euskarazko kanpainak bultzatuz.

JENARO SAGASTIBELTZA: Jubilatuen Elkarteko kidea da. Leitzako Ikastolako sortzailetakoa bat. Euskara, euskarazko irakaskuntza eta euskal kultura indartu eta bultzatzeko asmoz sortu zen ikastola, 70.hamarkadan.

IRATI ZABALETA: Amazabal institutuko batxilerreko ikaslea. Euskaraldian izena eman duten herritarretatik gazteenetakoa.

MAIA SARALEGI: Gazte Asanbladako kidea.

DIEGO RIAÑO: herriko bertso eskolako kidea.





Plazako argazki saioan herritar askok bat egin zuten Euskaraldiarekin,



Herri aretoaren kanpoaldeak izan dezakeen itxura proposamena.

HERRI ARETOA



Zinema eraikina orain arte ezagutu dugun moduan.

Zinema zaharrak Herri Areto moderno bati emanen dio paso


Herriko zinema moldatzeko obrak uda ondoren hasi ziren eta dagoeneko lan dezente aurreratu da. Barrualdea dena bota eta ustu dute eta areto berriak izanen duen itxura hartzen hasia da.

Herri Aretora sartu eta eskuinaldean izanen den pasillo batetik sartuko gara eserlekuetara. Areto nagusian antzez-

lekua, komonak, makinaria gelak eta txartel-lehiatila eraikiko dira. Antzezlekuaren azpian ere espazio berri bat sortuko da eta kamerinoak, komona eta entsaiatzeko gela izanen dira bertan.

Leitzak kultur bizitza handia du, jarduera ugari antolatzen dira urtean zehar, elkarte ezberdinen eskutik. Kultur ibilbide horri segida emateko he-

rriak beharrezkoa du eraikin egoki bat eta, zalantzarik gabe, premia hori asetuko du areto berri honek. Eskaintza zabala emateko prestatua egonen da: Zinea, antzerki emanaldiak, era guztietako jaialdiak, hitzaldiak, proiektzioak, batzarrak, talde-dinamikak, ... guztiek izanen dute kabida gunerik berri honetan.



Aretoko eserleku guztiak irekita. Proiekturako egindako irudia.



Aretoko eserlekuak bilduko dira behar denerako. Proiekturako egindako irudia.

DATUAK:

Guztira 260 eserleku izanen ditu.

2019ko abendurako bukatua izatea aurreikusten du Udalak.

1.300.000 euroko gastua izanen du. Aretoa berritzeaz gain inguruko kaleak urbanizatzea ere sartuko da gastu horren baitan.

Finantziazioa:

- %60ko diru-laguntza emanen du Nafarroako Gobernuak.
- %7ko diru-laguntza jasoko da Europar Batasunetik.
- %33a Leitzako Udalak ordainduko du.

Lau Aro jaialdi ikuskizuna 2015ean.



Euskal Herriko Txistulari Elkartearen batzarra Leitzako Zineman 2014an



Leitzako erraldoi taldearen entsaioa.



Haurren dantza emanaldia eskolaz kanpoko jarduerari amaiera emateko.



Ikusleak emanaldi baterako zineman sartzen.



Pailazoak umeekin.



LEITZA

Mari Karmen Arregiren begietan

MARMARI aldizkariko 30. alerako Lesakolarretako Mari Karmen Arregiri egin diogu gonbidapena eta pozik jaso du aldizkariko orri hauek bere argazkiz janzteko ardura. Oso gustukoa du argazkiak ateratzea, “batez ere erretratoak”, berak esan digunez. Ikusgai duzuen bilduma honetan, ordea, ez dago jendearen aurpegi askorik, paisaiak eta ospakizunak dira gehiago. Hala ere, guztien artean bada bat berezia, txuri-beltzean dagoean irudi bat, Lesakolarretako amona agertzen dena. Mari Karmenek amari ateratako erretrato bikaina da.



Negua.



Leitzelarreko zubie.



Gorritzaran.



Ixkibar.



Gaupasa ondorea pestetan.



Trenbidea.



Santakruz.



Ilunabarra.



Donmartinborda.



Plazaola.



Udaberriko tantak.



Udaberria.



Izaieta.



Pestak.





Eguzkiko muinoa.



Altzegiko kaskoan.



Ihotek.



Olentzeroren bila.



Banabarrak jalkitzen.

HITZOKEI

“**Taloween:** urriaren 31 gauean egiten den talo jate jaia.”

“**Hatxondo:** katxia edan ondorengo aldarte.”

Hemen da berriz ere, HITZOKEI, hitzekin jostatzeko ekimen interesgarria, sortzailea eta dibertigarria. Interneteko gune bat da, hainbat lagunek sortutako edo asmatutako hitzak jasotzen dituen. Umorea eta sormena elkartuz osatutako hitzak dira, eta hizkuntzarekiko eta euskararekiko jarrera positibo eta ludiko baten erakusgarri bikaina da.

HITZOKEIren webgunetik hartutako hainbat adibide jaso dira jarraian. Hitz gehiago ikusi nahi dituenak <http://hitzokei.tximinia.net> helbidean aurkituko ditu proposamen guztiak.

Adobatu: Haragia PDF-ra pasatzea

Ahatez ahate: Anatidoak era masibo eta basatian ehizatu beharrean, banan-banan biltzearen aldeko mugimendua.

Ajenda: ajea zein egunetan izango dugun apuntatzeko egutegi-liburua.

Alelhugar: esanahi bat topatutakoan bota ohi den zorioneko oihua.

Alkoholaritza: mozkor-mozkor eginda zaudenean ondokoari kontseju txarrak ematea.

Altzairu: hiruren artean jaso behar den burdin astun mota bat.

Amaia: beti bukaeran etortzen den laguna.

Amazona: aita umeekekin utzi ondoren, amak elkartzen diren basoa.



Andoain: herri honetan dirua ez da beharrezkoa, gauzak ordaindu gabe har daitetze.

Angela merkel: motxileroentzako osatua.

Antzuola: olatu honek bustitzen bazaitu, ez duzu seme-alabarik izango sekulan.

Argaizki: gizona desenfokaturik dagoen argazkia.

Barretxiko: deskojonoa eta barre-algara konstanteak eragiten dituen perretxiko mota.

Batzarra: nerabeen bilera batean dagoen agure infiltratua.

Bazoka: arma merkatua.

Beherapenak: eta gora bihotzak! denok merkatalguneetara!

Bereziardua: familia honetako kideak ardoa kiantza bada soilik edaten dute.

Disgustazio menua: txarto jan eta garesti ordaindu.

Dizkisugus: guk zuri goxoki batzuk eman...

Egunon-egunoff: goizean eta gauean agurtzeko modua.

Eskuminak: pilotak pilotariari.

Fukutxima: ile erradiaktiboa duen pertsona.

Ikearagarria: altzari suediarrez beteriko egongela.

Jon Maialen: Bertsozale Elkarteak sortu duen hibrido.

Hisskali: muxu bero-bero-beroak.

Lepoker: ondokoari kartak ikusi nahiean, tortikolisak jota dagoen poker jokalaria.

Loterria: nazionala barik, herrikoa den loteria.

Muki zapiens: klinexa erabiltzen hasi zen lehen primatea.

Mutiltarea: gizonezko informatikari baten ezintasuna bi prozesu aldi berean abiarazteko.

Liburuzain berria

Harkaitz Delgado

Urtebete pasa da Jose Luis Huartek herriko liburutegiko lanpostua utzi eta liburuzain berria sartu zenetik. Harkaitz Delgado da, orain, herriko liburu-zaindaria “2018ko urtarrilaren 11n sartu nintzen, nekez ahaztuko dut egun hura! Hurrengo egunak ere bere-ziak izan ziren; jendeak bazuen liburu-zaina ezagutzeko gogo, eta asko ha-rritu egin ziren ni ikusi nindutenean” kontatu digu elkarrizketa hasterako.

Liburuzain ibilbidean ez da berria-be-rria, Leitzako liburutegira etorri aurretik Urnietako liburutegian, Baztango libu- rutegian (Elizondon) eta Zarauzko Sanz Enea liburutegian aritu baita. Azkeneko honetan pasa du denbora gehiena.

«Hasiera-hasieratik oso maitatua sentitu naiz Leitzako liburutegian»



■ **laz zure aurreko liburuzainari, Jose Luis Huarteri, galdetu genion bere ordezkoa ere euskalduna izatea lortuko ote zen “Badirudi baietz” erantzun zigun. Eta hala gertatu zen. Herriko liburutegian langile euskalduna izateak zenbateko garrantzia du zuretzat?**

Erabatekoa! Leitzako liburutegiko liburuzaina euskalduna izatea ezinbes-tekotzat jotzen dut; ez dut bestela iru- dikatzen.

Jose Luis jubilatu zenean, oraindik ere ez zegoen zehaztuta Leitzako libu- rutegiko lanpostuaren hizkuntza profi- la, eta ordezeko liburuzaina erdalduna izateko arriskua bazegoen. Zorionez, eta egindako ahaleginei esker, Foru De- kretu bidez arautu zuten Nafarroako liburutegi publikoetako zenbait liburu- zain postuk C1 mailako euskara jakin- tza maila izatea; horien artean, Leitzak. Jose Luis azaroan jubilatu zen, Foru Dekretua abenduan argitaratu zuten eta

ni urtarrilean hasi nintzen liburuzain, Leitzan.

Euskalduna naiz, eta zerbitzua eus- karaz eskaintzen dut. Jendaurrean egiten dugun lanaz gain, ordea, badira beste hainbat lan Nafarroako Liburutegi Sa- rean isla dutenak, eta horiek ere euska- raz egiten saiatzen naiz. Konparazio batera, liburu bat katalogatzen denean oso gutxi dira euskaraz egiten dutenak. Jose Luisek egiten zuen, eta bide bere- tik eta ereduari jarraituz saiatzen naiz



Txanpon baten truke.

ni ere euskaraz katalogatzen. Liburuzain euskalduna izatea bezain garrantzizko-tzat jotzen dut euskaraz lan egitea.

■ Urtebete daramazu Leitzako liburutegian, zer moduzko balantzea egiten duzu?

Nik oso balantze positiboa egiten dut, baina agian erabiltzaileei galdetu behar-ko genieke (kar, kar). Hasiera-hasieratik oso maitatua sentitu naiz. Babes handia izan dut bai Liburutegi Zerbitzutik, bai Udaletik eta, zer esanik ez, herritarren aldetik. Hasi besterik ez naiz egin, eta aurretik lan handia dudala ikusten dut. Espero dut luzerako egotea Leitzan, oso gustura nago-eta. Aipatu dudan bezala, babesa izatea ezinbestekoa da; ilusio pizten du, eta horrek modu zuzenean eragiten du emaitzetan. Antolatu genuen lehen ipuin kontaketa jendearen erantzuna ikaragarria izan zen, inondik inora ez nuen horrenbeste umerik espero, eta haiek gozatzen ikustean... oso emozionantea izan zen.

■ Alde handia al dago Zarauzko liburutegiaren eta Leitzakoaren funtzionamenduaren artean?

Funtzionamendu aldetik, alde handiena lan-banaketa nabaritu dut. Zarautzen

«Azkeneko hamarkadetan liburutegiek aldaketa handia izan dute, neurri handi batean Internetek eraginda»

bost pertsonako lan-taldea ginen, bakoitzak ardura eta lan desberdinak genituen; Leitzan, ordea, lan guztiak nik bakarrik egin behar ditut. Lan-bolumena txikiagoa da, noski, baina, azken finean, burua hamaika tokitan eduki beharra dago. Pazientzia handia daukat, zorionez, eta pixkanaka-pixkanaka lanak aurrera ateratzen ditut. Aitortu behar dut Zarautzen lankide bikainak izan nituela eta haiei ikasitakoei esker erabaki asko hartzeko ziurtasuna dudala orain; asko zor diet.

■ Urtero izaten da liburu arrakastatsurik: argitaratu berria delako, idazle ezagunen batena delako, sekula-

ko oihartzuna izan duelako... Zein da aurtengo *Best-sellerra* edo gehien eskatutako liburua?

Liburu bakarra gabe, batzuk aipatuko ditut: helduen narratiban, euskaraz, Uxue Alberdiren *Janisjoplin* liburua izan da jendeak gehien irakurri duena; gaztelerez, aldiz, lau zpabost autore izan dira irakurrienak. Eva G.^a Saenz de Urturiren triologiaren hirugarren liburua argitaratzearekin, jende askok irakurri nahi izan ditu lehenengo biak, eta gauza bera gertatu da Ibon Martinen liburuekin. Pierre Lemaitre, Camilla Lackberg, Angelika Schrobsdorff... idazle horienak ere etengabe irakurtzen dituzte. Hala ere, gure irakurle finenak haurrak dira, eta badira oso gustukoak dituzten egileak: Olga de Dios, Anna LLenas, Tullet, Bonilla, Turin... horiek etengabe irakurtzen dituzte. Adinean gora eginda ere baditugu irakurle bikainak, eta horiek gehien irakurtzen dituzten artean ditugu *Eta zer?* bildumakoak, *Geronimo* eta *Tea Stilton*, *Nur...* Eta gaztetxoek gehien irakurtzen dituzten egileak dira Andueza eta Jasone Osoro, euskaraz, eta Laura Gallego, gaztelerez.

■ Durangoko azokaren 53. edizioa "anitz, baikorra eta arrakastatsua" izan dela adierazi dute antolatzaiei



Irakurle taldea Ramon Saizarbitoria idazlearekin izandako solasaldian.

leek. Liburu eta diskoen azoka eza- gunak izaten al du eraginik liburu- tegieta?

Eraginik badu, hori positiboa dela esango nuke nik. Irakurzaletasuna bultzatzeko ekimenez har genezake; izan ere, liburu bat erosi eta irakurtzen duenak gehiagoren beharra izaten du, normalean. Horregatik, parametro horien arabera neurtzen badugu Durangoko Azokak liburutegietan duen eragina, bada, pentsa: liburutegietan dohainik aurki dezakete liburu-egarria asetzeko iturri amaigabea. Gainera, ez dugu ahaztu behar batez ere euskal literatura dela protagonista Durangon; beraz, euskal letren industria mantentzen laguntzen du, eta, bide batez, gure liburutegiak hornitzeko behar ditugun liburuak sortzen jarraitzeko pizgarria ere bada.

Liburutegiaren oinarria liburuaren maila leguak dira, jakina, baina gaur egun bestelako euskarriek ere lehen baino garrantzi gehiago dute ezta? (DVD-ak, ordenagailuen erabilerak...). Erabiltzaile gehiago erakarri ditu horrek? Liburutegien oinarriak buruz luze eta zabal hitz egin genezake. Azkeneko hamarkadetan aldaketa handia ezagutu dute, neurri handi batean Internetek eraginda, eta horrek liburutegiak erabat eraldatu ditu, eta oraindik ere aldatzen ari direla esango nuke. Zenbait liburutegik, jada, liburutegi hitza ere baztertu eta beste-lako izenak erabiltzen dituzte errealita-



Ipuin osagilea.

te berrira egokitzeko. Garai batean informazio gehiena, dena ez esateagatik, liburutegietan gordetzen zen; gaur egun, aldiz, liburutegietan gain, beste euskarri batzuetan ere aurki dezakegu, eta horietako batzuk ordenagailuz baino ezin dira kontsultatu. Liburutegira gerturatzen diren erabiltzaile guztiek ez dute liburuaren beharrik, beraz, baina badute ase beharreko informazio behar bat, eta liburutegiak erantzuna ematen saiatzen da. Kasu askotan liburutegia jendearen topagune bihurtzen da, eta modu horretan gertatzen da informazio trukea. Aldaketa horiek guztiak modu naturalean ematen dira, eta agian ez dira hainbeste

antzematen erabiltzaile kopuruan, baina bai horiek egiten duten liburutegiaren erabileran.

■ Liburutegia bestelako bilgune ere izaten da maiz, literaturaren bueltan bestelako ekitaldiak antolatu dituzuelako: esaterako, zer?

Aipatu dudan bezala, liburutegia jendearen bilgune bihurtu da, eta, maiz, literaturaren bueltan antolatzen ditugun ekitaldiak horren erakusgarri dira. Aurretik antolatu ditugun artean ditugu, konparazio batera, antzerkiak, ipuin-kontaketak, poesia emanaldiak eta irakurle taldearen saioak. Guztiek ere arra-



Idazlea zeu zara irakurtzen duzulako.



Ni neu galtzeta.

kasta handia izan dute, eta aurrerantzean ere horrelakoak antolatzen jarraituko dugula zalantzarik ez izan.

■ **Irakurle Taldeak ere martxan segitzen du, sasoiko dagoela esan al dai-teke?**

Bai, bai, sasoi betean dago! Aurten, gainera, Irakurle Taldera kide berriak bildu zaizkigu, eta, jada 15 pertsona inguru gara. Urritik ekainera biltzen gara, hileko bigarren asteazkenetan, 18:00ak aldera. Guztira euskarazko 9 liburu irakurtzen ditugu, eta irakurritako liburua- ren bueltan solasalditxo egiten dugu. Irakurle Taldean parte hartzeko ez da

literaturan aditua izan behar, ezta gu- txiago ere. Ikusitako pelikulak komen- tatzen diren bezalaxe aritzen gara libu- ruen gainean solasean, eta iritzi eta ikuspegi desberdin horien elkartruka- tzetik jasotzen dugu gozamina.

■ **Gonbidatu bereziak izan dituzue gainera, aurten, Leitzako Irakule Taldean. Zer moduzko esperientzia izan da?**

Irakurle Taldearen ikasturte hasieran eta bukaeran (urrian eta ekainean) iraku- rritako liburua- ren egilea ekarri izan ohi dugu. Horretan Euskara Zerbitzuari es- kerrak eman beharrean gaude, hura bai-

ta horretarako aukera eskaintzen diguna eta egileekin zubi-lana egiten duena. 2018an, gainera, euskal literaturaren bi handi izan genituen gure artean. Ekai- nean, Ramon Saizarbitoria gonbidatu genuen, eta harekin solasaldi atsegin be- zain aberasgarria izan genuen; urrian, berriz, Uxue Alberdirekin izandako hiz- ketalditxo gogoangarria izan zen. Biak ala biak momentu oso bereziak biziarazi zizkiguten gurekin emandako denboran.

■ **Bukatzeko, oporraldia irakurtzeko garai aproposa denez, zein liburu gomendatuko zenuke?**

Irakurtzeko liburu aproposena bilatzen laguntzen diogu sarritan jendeari, nola- baiteko gida-lana egiten dugu. Norma- lean, aurretik zer irakurri duen galdetu, gustatzen zaizkion gaiak edota garaiak zein diren ezagutu, eta horren arabera gomendatzen ditugu liburuak. Liburu bakoitzak bere irakurlea du, eta irakurle bakoitzak bere liburua. Hala ere, badira edonorentzako oso gomendagarriak di- ren liburuak, liburu gustagarriak; horie- tako bat da Uxue Alberdiren *Jenisjoplin* liburua, adibidez. Horretaz gain, eta ze- rrendatxo bat osatzeko, hauexek gehitu- ko nituzke: *Amekez dute* (Katixa Agirre), *Zaldi Mamarroa* (Ekaitz Goienetxea), *La piedra de la paciencia* (Atiq Rahimi), *Del color de la leche* (Nell Leyshon)... Badago non aukeratu!



LH 5. maila.

Erletakoak olerkari

ERLETA eskolako 5. mailako ikasleak olerkari bikainak direla erakutsi digute. Marmarirako propio idatzi dituzte hainbat poema, gai ezberdinen inguruan. Taldeka bildu eta, gai bana oinarri hartuta, olerkiak sortu dituzte. Sorkuntza lan eder horren emaitza da eskuartean duzuen bilduma hau. Gabonetako oporrak hartu aurreko lana izan zen, beraz, eskerrik asko olerkari gaztetxo hauei, eta irakasleei, eskaini diguzuen lan polit honengatik!

MENDIAK

Argiak ematen diotenean
egiten dute distira
Udazkena iristean
itxuraz aldatzen dira.
Elurrak estaltzen dituenean
Kolore zurian ezkututzen dira .
Horregatik Leitzako mendiak
hain ederrak dira.

Egileak: Kattalin Lizarraga Mendia, Izar Lopez Zubillaga, Beñat Enciso Lamuedra eta Lontxo Zubitur Pascual.

ESKOLA

Eskola gure bizitza,
elkartasunerako bizia.
Hona ikastera etortzen gara,
Gure helburua hori baita.
Lan eta lan nekatzen gara,
baina, errekreoan lasaitzen gara.
Eskola zein ederra,
gure bihotza bezain ederra

Egileak: Kattalin Canflanca Arburua, Olaia Cerviño Vicente, Markel Martinez Sagastibeltza eta Unax Zabaleta Gartzia.

HERRIKO KULTURA

Herrian lagunak ugari
pozik eta kantari.
Eskolan elkartzen
gara beste lagunekin.
Eta jolasten gara
baloiarekin.
Ondo moldatzen gara
denok elkarrekin.

Egileak: Maddi Martinez - Barranco Duce, Javier Labayen Larraya, Uxue Zabala Zumarraga eta Axi Astibia Alkorta.

LEITZA

Nire Leitza maitea
Oso politak dira mendiak eta udaletxea
Oso polita da hemengo jendea
Dago animaliaz betea
Hemengo eguraldia da oso tristea
Oso ederra da zure kolorea
Zu zara berde-berdea
Egingo zaitugu geroz eta hobea

Egileak: Mikel Portu Barinaga-Rementeria, Ander Urbizu Garciarena, Joanes Olaizola Fuentes eta Sebastian Chindris Chindris.



LH 5. A.



LH 5. B.

LAGUNTASUNA

Ona da kidetasuna,
lagun guztien maitasuna.
Haserretzean galdu
baina gero bilatzen duguna.
Maitatuen lurruna,
bihotzaren osasuna,
lagun guztien elkartasuna.
Gora gure laguntasuna

Egileak: Beñat Portu Barinaga-Remen-
terria, Ugaitz Loiarde Olano eta Naroa
Olano Sagastibeltza.

KOLOREAK

Kolore biziak
bikiak eta bakartiak
Bakoitzak kolore
ederrenak daramatza
Koloreak poza
ematen dio bizitzari
Kolore argiak
neska polit baten
begiak bezelakoak
Koloreak marrazkien
Barruan daude.

Egileak: Lena Esteban Lana, June Vi-
cente Agirre, Ganix Rodriguez Urrutia
eta Urtzi Otermin Aizpuru.

EUSKARA

Euskara gure laguntza
Euskaldunen hizkuntza
Hizkuntza guretzat oparia
Euskal Herria maitagarria
Erraz ikasia
Gehienak txikitatik etxean hasia
Berarekin bizi gara
Ahoz-aho mara-mara
Euskaldunak gara!

Egileak: Etor Lizarraga Viguera, Naira
Martin Sukuntza, Aimar Azpirotz Erbi-
ti eta Kattalin Retegi Fernandez.

GURE HIZKUNTZA

Euskara gure ahoa
indarra gure besoa,
maitasunez ahoa eta besoa.
Etxean eta kalean
hizkuntza berean
euskara Euskal Herrian,
gu horrela gara hasiak.
Eta horrela guk hitz egingo dugu
bizi guztian.

Egileak: Paule Agirre Agirre, Aiora An-
diarena Villanueva, Unai Erdozia Zaba-
leta eta Xuban Telletxea Buldain.

Nongoak dira oporretara etortzen diren bisitariak? ...

Hainbat faktorek eraginda, azken urteetan, turismoaren gorakada eman da eta bisitarien kopuruak gora egin du. Bisitari horiek herritarren eguneroko hizkuntzari buruz duten iritzia jakin nahiean egin zen iaz lanketa berezia, Leitza, Areso, Goizueta eta Aranoko Euskara Mankomunitatetik, UEMaren laguntzarekin. Jasotako datuak ikertu ditu AHIZE enpresak eta ateratako ondorioak txosten batean bildu.

Lan hau egiteko turista eta bisitariak borondatez betetako 328 inkesten azterketan oinarritu da txostena. Leitza aldean bisitatu duten pertsona kopurua jakiterik ez dago, etorritako guztiek ez dutelako galdetegai bete, seguruaski. Baina bete duten horien iritzia baditugu eta neurketak zein emaitza eman duen ere bai.

Jarraian ditugu txosten honetan jasotako erantzunetatik atera ditugun ondorio nagusiak:

- Bisitari gehienek badakitela euskal hiztun asko bizi den gune batera joango direla, hau da, euskararekin topo egitea espero dutela.
- Talde handi batentzat joateko arrazoia ere hori izan dela, euskaraz bizi den herri baten bila joan direla.
- Oso gutxi izan direla deseroso sentitu direnak.
- Askorentzat, aldiz, atsegina izan dela eta asko gustatu zaiela.
- Gehienak eroso sentitu direla euskararekin izan dituzten harremanetan.
- Bisitarien zati esanguratsua euskal herritik bertatik datorrela, beraz, negozioaren ikuspegitik kontuan hartzeko moduko xede taldea dela eta premia zein eskubide linguistikoak dituela.



Argentinatik etorritako bisitariak.

- Beraz, laburbilduz, euskara bertara erakartzeko bereizgarria da batzuentzat eta ez da etortzeko oztopoa gaintzekoentzat. Euskara ezkuta-

tzeak ez du zentzurik bizikidetzaren ikuspegitik, ezta negozioaren ikuspegitik ere.

Bisitarien jatorriari erreparatuz gero:

%28a Euskal Herrikoa da, batez ere Bizkaitik eta Gipuzkoatik etorritakoak. Inkesta bete duten bisitarien 4tik 1 da beraz euskal herritarra.

%58 Espainiako estatuko beste komunitate batetik etorri dira. Nagusiki 5 komunitatetatik: Katalunia, Valentzia, Andaluzia, Madril eta Gaztela eta Leontik, hurrenez hurren. Inkesta bete duten bisitarien 4tik 2 dira espainiarrak.

%14 Atzerititik etorritako bisitariak dira: Erresuma Batua, Alemania, Italia, Herbehereak, Irlanda, Polonia, AEB, Kanada, Argentina eta Txilekoak.

... eta Leitzara bizitzera etorritakoak?

Azkeneko urteetan gero eta jende gehiago dator beste herrialde batzuetatik Leitzara bizitzera. Arrazoi ezberdinak medio iristen dira: gehienak lan bila etorritakoak dira, beste batzuk, ordea, bikotekidea bertakoa dutelako erabakitzen dute hemen geratzea.

Behin bizibidea lortua dutela familia osoa etortzen/ekartzen dute. Erroldatzea eta etxebizitza bila hastea izaten da hurrengo pausua, eta horretarako Udaltxera eta Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatera jotzen dute. Bertan beharrezko informazioa jaso eta modu horretan abiatzen da herrian integratzeko bidea.

Herrialde askotako jendea bizi da jada Leitzan, multzo handiena ekuatoriarrena da. 70 herritar inguru bizi da hemen. Familia asko dira, eta gehienek kasuan, gainera, seme-alabak bertan izan dituzte. Bertan jaioak eta bertan eskolatuak dira, Erleta eskolan ikasten dute eta hori herrira integratzeko beste bide bat da.

Ekuatoriarren segidan errumaniarrak dira kopuruan ugariak, 20 herritar bizi dira, gutxi gora behera, Leitzan. Errumaniarren kasuan joan-etorrian ibiltzen dira familiakide batzuk.

Horiek biak badira ere ugariak, beste hainbat herrialdetatik iritsitakoak ere bizi dira gure artean: nikaraguarak, hondurastarrak, kubatarak, portugaldarrak, frantziarrak, marokoarrak, pakistandarak, belgikarra, Ingalaterrakoa, ...

Guztiak modu ezberdinean integratu dira, bakoitzaren kulturak, hizkuntzak eta tradizioek asko markatu dute, eta batzuk besteek baino erraztasun handiagoarekin ireki dute herrian integratzeko bidea.

Bide horretan laguntzeko Areso, Arano, Goizueta eta Leitzako Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateak lanketa berezia egin du ekuatoriar indigenekin, emakumeen ahalduntzearen inguruan. Izan ere, gai jakin batzuk lan-



Emakume ekuatoriarrek.



tzeko premia ikusi zuten gizarte langileek, esaterako baloreen transmisioa. Horrekin batera bestelako hutsuneak bazituztela ere ohartu ziren, beraien alaben hezkuntzaz eta etorkinaz hausnartzeko beharra zutela eta hori ere lantzeko bide egokia izan da proiektu hau. Emakume indigenek bestelako balore batzuk jaso dituzte beraien kulturatik, orain bizi diren herriko kulturarekin talke egiten duena. Gaur egungo errealitatea hobeki ulertzen eta bertara egokitzen laguntzeko helburua izan du tailer honek, horretarako espazio eta gune apropos bat eskainiz. Azken batean, emakume hauei ahotsa ematea eta bizi izan duten berdintasun ezaren kontziente izatea lortu nahi da saio hauen bidez.

17 urtetik gorako emakumeek parte hartu dute kuturartekotasun tailer honetan, eta oso arrakastasua izan da. 20 partaide inguru bildu dira antolatutako saioetan.

zer diozu?

Mikel Nieve Iturralde



■ 2008an egin zenuen debuta profesional mailan, 10 urteko txirrindularitza ibilbidean 4 etapa eta mendiko sailkapena lortu dituzu itzuli handietan. Garaipenak ez ditu edonork eskuratzen, txirrindulari asko zaude baina denek ez dute destakatzeko zortea izaten. Nola baloratzen duzu lortutakoa?

Egia esan oso pozik nago orain arte lortu dudanarekin. Beti nahi izaten da garaipen gehiago lortu baina kanpotik errazagoa dirudien arren asko kostatzen da garaipenak lortzea.

■ 2017an SKY utzi ondoren Froomek haxe esan zuen: "Hitzekin ezin da deskribatu Nieve ("Frosty" deituaz) zenbat botako dudan faltan" ... zer sentitu zenuen?

Askok eskertzen dira esker oneko hitz horiek. Azkenean berarentzat lanean ibiltzea egokitu zait sarritan eta lan horrek horrelako estimua izan duela ikusteak bete egiten zaitu. Txapeldun handia da bizikletan nahiz hortik kanpo.

■ Orica-Scott taldean ari zara orain, aldaketa handia izan al da zuretzat?

Ez da aldaketa handiegia izan. Taldekide aldetik eta talde estruktura ezberdina da baina azken finean lan bera da egin beharrekoa. Hori bai lasterketetan libreago ibiltzeko aukera daukat, nire aukerak ere baliatzeko.

■ Askok bidaiatzen ohituta zaude lan kontuengatik, baina kanpoan zaudenean turismoa egiteko aprobetxatzen al duzu? Ikusitakotik zerk erakarri zaitu gehien?

Ez dugu turismo asko egiteko denborarik izaten. Hala ere, aitzakia horrekin oso leku politak ezagutzeko aukera izan dut eta Italia aldeko Dolomitetako mendiak geratuko nintzateke, inguru zoragarria da.

■ Aisialdirako denbora askorik geratzen ez bazaizu ere, zertan pasatzen duzu? Zein dira zure afizioak: irakurtzea, zinema, mendia, ...

Etiket kanpo denbora asko pasatzen dugunez etxe-koengandik urrun beraiekin egiteko aprobetxatzen dut denborarik gehiena. Ez naiz oso irakurzalea baina duela ez asko irakurri nuen "Plomo en los bolsillos" liburua asko gustatu zitzaidan. Musika berriz momentuak eskatzen didana jartzen dut talde edota bakarlari jakin baten aldeko hautua egin gabe.

■ Herriminik sentitzen al duzu, kanpoan zabiltzanean? Baduzu Leitzako paraje edo toki-inguru kuttunen bat?

Bai azkenean ia urte erdia Leitzatik kanpo igarotzen dut ta herrimina sumatzen da. Gustura bueltatzen naiz ahal bezain pronto. Leitzako mendiak ditut gustoko, urruturi joan gabe zer nolako altxorrak ditugun inguruan: euzkiko muñoa, leitzelarrea, urepel, mandoegi... zoragarriak dira denak!

Nerea Zabaleta Lasarte



■ Biokimikaria zara, eta aurten terapia genikoaren arloko ikertzaile gaztearen saria lortu duzu, Zorionak!

Saria oso esanguratsua izan zen profesionalki baita pertsonalki ere. Lan askoren ondoren lortutakoa eta aldi berean datuak ongi aurkeztu eta transmititzeagatik ere izan zen. Oso polita eta betegarria da esfortzu handiarekin egindako lana saritua izatea.

■ Ikerketetan erabat murgilduta zabiltzate batean eta beste eguberrien ondoren Bostonera joanen zara beste ikerketa bati ekiteko. Zer ikasi duzu toki horietan?

Paris eta New York-en laborategi bikainetan egoteko aukera izan nuen. Horrez gain bizitzeko ikasketak izan direla ere pentsatzen dut: bakarrik atzerrira joatea eta konturatzea gai naizela bakar-bakarrik aurrera ateratzeko, guztiz pertsona independentea izateko. Gainera, leku eta kultura desberdineko jende asko ezagutu dut eta horrek adimena asko ireki dit. Bostonen profesionalki eta batez ere pertsonalki handitzen jarraitzea espero dut.

■ Kanpoan zaudenean turismoa egiteko aprobetxatzen al duzu? Zerk erakarri zaitu gehien?

Nire lanaren ondorioz asko bidaiatu izan dut: Europan eta Estatu Batuetan ospatu diren kongresuetara eta baita lehenago aipatutako egonaldietara. Kongresuetan aisialdirako denbora gutxi izaten dugu baina aprobetxatzen dugu. Gehien erakartzen nauena monumentu eta eraikuntza enblematikoak bisitatzea da, bai antzinako monumentuak baita etxe orratz berriak ere. Orokorrean, bisitatzen dudana herrialdearen kultura eta historia kontatzen duten lekuetara jotzen dut.

■ Aisialdirako denbora gutxi duzula diozu, baina duzun apurra zertan pasatzen duzu?

Astez daukadan denbora gutxi hori kirola egiteko aprobetxatzen dut, gimnasia joateko, eta azkenaldian afizio berri bat aurkitu dut: dantza arabiarak. Nire kasuan burua deskantsatzeko ezinbestekoa da kirola egitea eta doktoretzan zehar asko lagundu dit. Bestalde, beti izan naiz irakurle amorratua, gauero lo egin aurretik bizpahiru atal irakurtzen ditut beti. Literatura historikoa asko irakurri izan dut eta genero honen barnean Ken Follet-en "The Century" trilogia azpimarratuko nuke, zeina XX. hamarkadako momentu historiko garrantzitsuenetan kokatua dagoen.

■ Herriminik sentitzen al duzu? Baduzu Leitzako paraje edo inguru kuttunen bat?

Denbora gutxirako joan naizenean ez dut herrimin handirik sentitu, azkenean hiru hilabete konturatu gabe joaten dira. Baina, urtarilean Bostonera joaten naizenean ziur nago herrimina sentitzen hasiko naizela. Urrun zaudenean familia, lagunak eta Euskal Herriko giroa falta zaizkizu. Nik gehienbat mendiarekin kontaktuan egotea botatzen dut faltan. Naturaz gain, Leitzako alde zaharra asko gustatzen zait eta oso zaila da munduko beste leku batzuetan magia hori aurkitzea.